

Euskaltegian, 2009-2010 ikasturtean euskara ikasteko diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarriak.

Ordiziako Udalak, Ordizian euskararen erabilera normalizatzeko tresna publikoa izanik, bere helburuen eta egitekoen barne hartzen du ordiziarren euskalduntzea sustatzea. Horiek horrela, deialdi honen bidez, Ordiziako Udalak euskara ikasteko eta hobetzeko diru-laguntzak emateko arauak finkatu ditu.

I. XEDEA

1. artikulua. Laguntzen helburua.

Euskara ikasten edo hobetzen diharduten bizilagunei diru-laguntza publikoak ematea da oinarri hauen xedea.

2. artikulua. Eskumena duen organoa.

Deialdia Ordiziako Udalak onartuko du eta deialdiaren zabalpena eta argitalpena bermatuko du.

3. artikulua. Araudia.

Laguntzen emakidak nahiz diru-laguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta diru-laguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gaietarako azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Legea (*Estatuko Aldizkari Ofiziala*. 2003-11-18) hartuko da oinarri.

II. ESKATZAILEAK

4. artikulua.

Diru-laguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak bete behar dituzte:

— 16 urtetik gora izatea, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako eta Ordizian errolatuta egotea.

— Egoitza soziala Ordizian duen eta Lanean planean dagoen enpresa batean lan egitea; Dendaz denda, euskara planean dagoen merkatal-establezimendu batean lan egitea; edota Udalarekin euskara sustatzeko hitzarmena sinatu duen kirol-talde bateko begiralea edo entrena-tzailea izatea.

Diru-laguntza honetatik kanpo geratzen dira, xede berbererako beste erakunde pribatutik edo publikotik, HABEtik izan ezik, diru-laguntza jaso duten ikasleak.

5. artikulua. Lagundu daitezkeen ikastaroak.

HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, 2009ko urriaren 1etik 2010eko irailaren 30a bitartean antolatutakoak.

a) HABEk homologatutako ikastaroak. (2005eko uztailaren 27ko ebazpena).

— Modulazio ezberdineko ikastaroak (210 ordu gutxienez).

— Barnetegiak (4 hilabete gutxienez). Ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

— Auto-ikaskuntza (beti ere modulu osoa betetzen bada eta gutxienez 190 ordu egiten badira).

— EGA eta alfabetatze ikastaroak (120 ordu gutxienez).

— Udako ikastaroak (80 ordu gutxienez).

b) Ikastaro ez homologatuak: Modulazio txikikoak, baina beti ere ikasturtean zehar urrats bat gainditzen bada.

6. artikulua. Diru-laguntza jasotzeko baldintzak.

— Eskabidea behar bezala beteta eta derrigorrezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.

— Eskatzaileek Ordizian egoiliar gisa erroldatuta egon behar dute diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako (azken eguna barne).

— Erroldatu gabeko eskatzaileen kasuan, gutxienez sei hilabetez egon behar dute lanean Ordiziako enpresa, merkatal establezimendu edota kirol-talde batean, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako.

Oharra: Ikasleak, erroldatuta dagoen Udalaren diru-laguntza jasotzen badu, ezingo dio eskaerarik egin Ordiziako Udalari.

— Euskarazko ikastaroan gutxienez %85etik gorako asistentzia egiaztatzea; horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan. Asistentzian egindako huts egiteak zuritzeko gaixotasun agiriak bakarrik onartuko dira.

III. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

7. artikulua. *Diru-laguntza motak.*

— Beka. Beka eskaria egiteko, etxeko bizikide kopuruari eta azken urteko errenta aitorenari begiratuko zaio, gehienez ere beheko diru-sarrera garbiak onartuko direlarik. Beka eskatzeko baldintzak betetzen dituztenei, matrikula kostuaren %75 itzuliko zaie; ezarritako gutxieneko ordu kopurua baino gutxiago eginez gero, %60.

Bizikide kopurua Diru-sarrera garbia

1	9.310,00
2	15.186,00
3	19.913,00
4	23.636,00
5	26.823,00
6	29.907,00
7	32.816,00
8	35.708,00

— Diru-laguntza langabetuei eta ikasleei. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak betetzen dituztenei, matrikularen %60 itzuliko zaie; ezarritako gutxieneko ordu kopurua baino gutxiago eginez gero, %40.

— Diru-laguntza lanean ari direnei. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak betetzen dituztenei, matrikularen %20 itzuliko zaie; ezarritako gutxieneko ordu kopurua baino gutxiago eginez gero, ez dute diru-laguntzarik jasoko.

— Diru-laguntza Lanean! Ordiziako enpresak euskalduntzen planean dauden enpresetako arduradun eta enplegatuei; Dendaz denda, euskara hitzarmena sinatu duten merkatal establezimenduetako arduradun eta enplegatuei; eta euskara sustatzeko hitzarmena sinatu duten kirol-taldeetako kirol-begirale eta entrenatzaileei. Diru-laguntza eskatzeko baldintzak betetzen dituztenei, matrikularen %60 itzuliko zaie; ezarritako gutxieneko ordu kopurua baino gutxiago eginez gero, %40.

Edozein kasutan, urteko gehienez ere 400 €ko diru-laguntza jasoko du eskatzaile bakoitzak.

8. artikulua.

Aurreko artikuluan jasotako diru-laguntzak jasotzeko, lehendik diruz lagundu ez den urrats bat gairatu behar dute eskatzaileek. Lehendik diruz lagundu den urratsa bigarren urtez errepikatzen dutenei, murriztu egingo zaizkie diru-laguntzak:

— Beka eskatzaileak: %60.

— Ikasle eta langabetuak: %40.

— Lanean ari direnak: %0.

Ez dute banakako diru-laguntzarik jasotzeko aukera izango jadanik Udalak diruz laguntzen dituen berariazko ikastaroetan parte hartzen dutenek.

IV. ESKABIDEAK

9. artikulua. *Eskabideak egiteko epeak.*

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du diru-laguntza eskaera. Herritarren Arretarako Udal Bulegoan (Kale Nagusia, 26-behea), 9:00etatik 13:00etara bitartean, ondoren zehazten denaren arabera:

- a) Neguko ikastaroak (urria-ekaina).
 - urrian hasten diren ikastaroak: 2010eko ekainaren 21etik uztailearen 9a bitartean.
 - Otsailean hasten diren ikastaroak: 2010eko ekainaren 21tik uztailearen 9a bitartean.
 - Barnetegiak eta xede berezietako ikastaroak: Ikastaroa amaitu eta bi asteren barruan.
- b) Udako ikastaroak (uztaila-iraila).
 - Ikastaroak amaitu eta bi asteren barruan.

- c) Auto-ikaskuntza:
 - Ikastaroak amaitu eta bi asteren barruan.

10. artikulua. Eskabide orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- NAREN fotokopia.
- Matrikularen kutzako ordainagiria(k).
- Euskaltegiak egindako ziurtagiria. Bertan honako hauek adierazko dira: Matrikularen ordainketari buruzko informazioa, ikastaroaren hasiera eta amaiera datak, ordutegia, ikasleak jasotako ordu kopurua, egindako maila edo mailak, gainditu diren ala ez, aprobe txamendua eta asistentziari buruzko informazioa.
- Beka-eskatzaileen kasuan:
 - Azken urteko errenta aitortpenaren kopia edo egin ez izanaren arrazoia adierazten duen Ogasun sailaren ziurtagiria.
 - Bizikidetzagiria. Oinarri hauen ondorioetarako, bizikidetzako unitatetzat jotzen da ohiko helbidean elkarrekin bizi diren pertsona guztiak. Gurasoekin bizi diren 30 urtetik gorako beka-eskatzaileak, ordea, kide bakarreko bizikidetzako unitatetzat hartuko ditu Udalak. Era berean, gurasoekin bizi diren eskatzailearen anai-arrebak 30 urtetik gorakoak direnean, ez dira bizikidetzako unitateko kide konputagarritzat hartuko.
- Langabetuen kasuan:
 - Gizarte Segurantzak egindako lan-bizitza ziurtagiria. Interesatuak ez du ziurtagiria ekarri behar, baina, eskabidearen bidez, baimena ematen dio Ordiziako Udalari GSI Nri bere lan bizitzari dagokion datuak eskatzeko.
- Ikasleen kasuan:
 - unibertsitateko edota bestelako ikasketen matrikula-ordainagiriak.
- Erroldatu gabeko ikasleen kasuan,
 - lan egiten duten Ordiziako zerbitzu enpresa edo entitatearen agiria.

Oharra: Aurrez aipatutako ikastaro mota guztietan, ikasturtean zehar hiru hilabetetik gora jarraian lanean ari diren eskatzaile guztiek: lan egiten duten enpresaren edo administrazioaren ziurtagiria aurkeztu behar dute, ikastaro horrengatik beste diru-laguntzarik jasotzen ez dutela egiaztatzeko.

11. artikulua.

Aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei egutegiko hamar eguneko epea emango zaie, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hutsak konpon ditzaten. Zerrendak ezagutzera emateko epeak honakoak izango dira:

- Neguko ikastaroetakoak: 2010eko uztailearen 16a. Akatsak zuzentzeko epea: 2010eko uztailearen 19tik 29ra.
- Udakoak: 2010eko urriaren 8an. Akatsak zuzentzeko epea: 2010eko urriaren 9tik 19ra.

Epea amaitu eta akatsak konpondu edota dokumentazioa osatu ez badituzte, eskaera bertan behera utzi dutela joko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

V. PROZEDURA

12. artikulua. Izapidetzea eta proposamena.

Ordiziako Udalari dagokio deialdi honetan aurreikusitako diru laguntzen izapidetze-lanak burutzea.

1. Organo instrukzio egileak ofizioz ebazpen proposamena landu ahal izateko, aurkeztutako datuak aztertze, ezagutzeko eta egiaztatze beharrezko ikusten dituen jarduerak egin ahal izango ditu. Egoki iritzitako txostenak eskatu ahal izango ditu, horretarako egutegiko hamar eguneko epean emanez, txostena egiteko epea laburragoa edota luzeagoa behar denean izan ezik; azken honetan epea bi hilabetekoa izango da gehienez.

2. Organo instrukzio egileak eskaerak baloratu ondoren, horretarako eratu den Balorazio Batzordeak txostena egingo du. Balorazio Batzordea Euskara, Kultura eta Hezkuntza zinegotzi-ahaldunak eta Euskara Zerbitzuko teknikariek osatzen dute.

3. Espedientearen eta Balorazio Batzordearen txostenaren argitan organo instrukzio egileak behin-behineko ebazpenaren proposamena egingo du, behar den moduan arrazoitua. Ondoren, interesatuei jakinaraziko zaie, Ordiziako Udalaren iragarki taula edota web orri bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko egutegiko hamar eguneko epea emango zaie. Horretarako datak eta epeak honako hauek dira:

Argitalpen data: 2010eko XXXXX

Alegazioak aurkezteko epea: 2010eko

4. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da.

5. Espedienteari izapidegilearen txostena erantsiko zaio, eta bertan eskura duen informazioaren arabera, diru-laguntzen onuradunek diru-laguntza jasotzeko beharrezko baldintza guztiak betetzen dituztela adieraziko da.

13. artikulua. Ebazpena.

1. Behin betiko proposamen ebazpena onetsi ondoren, Alkateak prozedura ebatziko du ziodun ebazpen bidez, eta jardunbidean erabakiaren funtsak adieraziko dira, oinarrietan ezarritakoarekin bat.

2. Ebazpenean berariaz adieraziko dira ezetsitako eskabideak.

3. Behin betiko ebazpena eta zerrendak ezagutzera emateko data ondorengoa izango da: 2010eko...

4. Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.

14. artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna.

Oinarrien arabera emandako diru-laguntzak bateragarriak izango dira soilik HABE erakundeak deitutako lehen eta bigarren mailak, deialdi itxian EGA maila eta 4. maila egiaztatzeagatik ematen dituen diru-laguntzekin, baldin eta gain-finantziatorik gertatzen ez bada. Horrelakoetan, dagozkion kenketak egingo dira, aldea ez ordainduz edo dagokion kopurua itzultzeko eskatuz. Halaber, HABEren dirulaguntza-gai den maila egiaztatzen den ikasturtean Udalak ez du dirulaguntzarik emango.

15. artikulua. Diru-laguntzen finantzaketa.

Oinarri hauen xede diren diru-laguntzetarako Udalaren 2010eko aurrekontuan finkatutako kopurua erabiliko da. Aipatu diru kopurua diru-laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean banatuko da.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoa gehitu ahal izango da, baldin eta Euskara arloko beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira, Alkatearen ebazpen bidez.

Guztiarekin ere, diru-laguntzen zenbatekoa ezin izango da egindako ikastaroen matrikula-kostua baino handiagoa izan.

16. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntzen behin betiko ebazpena emanda, diru-laguntza ordainketa bakarrean kitatuko da banku transferentzia bidez, azaroan.

17. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

— Diru-laguntza emateak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak interesatuak betetzen dituela egiaztatzea.

— Ordiziako Udalak egin beharreko egiaztatze-lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean, kontrol-organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; aipatu jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da.

— Beste edozein administrazio edo erakundetatik (publiko nahiz pribatua, nazio mailako nahiz nazioartekoa) jasotako diru-laguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.

— Emakidaren ebazpena idatzi baino lehen, zerga ordainkizunetan eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean dagoela egiaztatzea.

VI. ARGITARA EMATEA

18. artikulua.

Emandako diru-laguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrendak, Udalaren web orrian eta iragarki taulan argitaratuko dira.

